

ZUMAI A / Irakurzaletasuna bultzatzen

Apirilaren 23a egun berezia da literaturaren zaleen-tzat. 1616ko apirilaren 23 batean William Shakespeare, Miguel de Cervantes eta Garcilaso de la Vega idazleak hil ziren. Egun berdinean, baina 1981ean, Josep Pla zendu zen. Egun horretan ez dira heriotzak bakarrik gertatu, 1899ko apirilaren 23an Vladimir Nabokov idazlea jaio baitzen. Literaturako hainbat pertsonaiek egun horrekin lotura zutela-eta, Unescok egun hori aukeratu zuen Nazioarteko liburu eguna bezala.

Liburu egunaren baitan, hainbat ekitaldi antolatu ditu Zumaiko Udal Liburutegiak, asteleheneetik ostiralera bitartean. Hauen funtsa herritarren artean irakurzaletasuna bultzatzea dela azpimarratzen du Nerea Uriarte liburuzainak: Ekitaldi gehienak haur eta gaztetxoentzat zuzenduta daude. Askok dira liburutegira etortzen diren haurrak eta gainera, beraiek dira etorkizuna. Helduentzako ere antolatu dugu ipuin kontaketa bat, baina onartu behar da ez dutela haurrenak bezalako arrakastarik izaten.

Ekitaldi bitxiena Liburu Erraldoiaren tailerra aurkitzen da. Asteazkenean egingo da, arra-tsaldeko 5:30etik 7:30era bitartean. Haurrak adinaren arabera banatuko dira, liburutegi bertako adin banaketa errespetatuz. Haurrek taldeak osatuko dituzte eta adin bakoitzaren arabera marrazkia, izenak edo ideiak emango dizkiegu. Hauekin ipuin batzuk egingo dituzte. Irudimen edo txukuntasun handiena erakutsi dutenei sariak emango dizkiegu, dio Marije Gilek. Bukatzerakoan, eta hezitzaileen laguntzarekin, marrazki hauek guztiak Liburu erraldioan itsatsiko dira.

Bazkide ugari

Zumaiako Udal liburutegiak bi mila bazkidetik gora ditu une honetan. Liburuzainen ustetan, kopuru polita da, herriaren ia laurdena baita bazkide. Kontua da gero zenbat jendek erabiltzen duen zerbitzu hau. Eguraldiak eta garaiak ere zer ikusia izaten dute. Eguraldi txarrarekin edo neguan jende gehiago izaten dugu; udan, berriz, liburua hartu eta jendea joan egiten da. Egunen batean Liburutegia Alondegira eramaten bada, erabiltzaile kopurua handituko delakoan daude: Orain Forondara igo behar dela eta kexu dira; han ez dute aitzakiarik izango.

EGITARUA

- Apirilak 21: Enid Blytonen Bosten abenturak filma. Forondako ganbaran, 17:30ean.
- Apirilak 22: Hirukiak eta sorgin aspertua filma. Forondako ganbaran, 17:30ean.
- Apirilak 23: Liburu Erraldoia egiteko tailerra. Haur liburutegian 17:30etik 19:30era.
- Apirilak 24: 1.728 animalia kontu ipuin kontaketa. 5 urtetik 9ra. Haur liburutegian 17:30ean.
- Apirilak 25: Alaitz Muro kontalaria eta Agurtzane Villate ilustratzailearekin ipuin kontaketa. Haur liburutegian, 17:30ean
- Apirilak 25: Jose Mari Carrere ipuin kontalaria. Helduentzat. Forondan 20:00etan.